



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2009ko urriaren 23a

105. ZK.

A U R K I B I D E A

C SAILA:

Bestelako proposamenak:

—Lege proposamena, ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina aldatzekoa. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da mezenasgoari buruzko foru lege proiektu bat presta dezan, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren finantzaketa handitu ahal izate aldera. Ana Figueras Castellano andreak aurkeztu du (5. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da podologia-zerbitzua emateko sistema bat abian jar dezan. Ana Figueras Castellano andreak aurkeztu du (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Estellerriko mendialderako berriazko ekintza plana gara dezan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroan klima aldaketa arintzeko plan bat presta dezan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (8. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hitzarmen bat sina dezan Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin, Nafarroako udaletan bizikletentzako aparkalekuak jartzeko. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (9. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, Osasun Departamentuaren eta Arfe-Felipe Lecea Fundazioaren arteko hitzarmenaren etorkizunari buruzkoa. Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak egin (10. or.).

—Galdera, Tuterako osasun-barrutirako endokrinologia zerbitzuari buruzkoa. Ana Figueras Castellano andreak egin (11. or.).

- Galdera, urtero gizarte etxeak edo gune soziokulturalak abian jartzeko laguntzen deialdiari buruzkoa. Román Felones Morrás jaunak egina (11. or.).
- Galdera, Nafarroako osasun zerbitzu publikoan haurdunaldiaren borondatezko eteteak egiteko aukerari buruzkoa. Ion Erro Armendáriz jaunak egina (12. or.).
- Galdera, jakiteko ea badagoen Nafarroako Gobernuko funtzionarioik lanean, zuzenean nahiz eszedentzia batekin, enpresa publikoren batean. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, Nafarroako Foru Komunitatean uztailean eta abuztuan gertatutako suteei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Lan-taldea, Nafarroako Foru Komunitateko Osasun Publikoaren Plan Estrategikoari buruzkoa. Osaerari eta eratzeari buruzko arauak (16. or.).

C saila:
BESTELAKO PROPOSAMENAK

Lege proposamena, ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina aldatzekoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urriaren 19an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak, Nafarroako foru eraientza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz eta Espainiako Konstituzioaren 87.2 artikulua babesean, ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina aldatzeko Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 147. eta 211. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Ele-dunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Izapidetzeko onartzea ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina aldatzeko Lege proposamena, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2. Lege proposamen hori Nafarroako Gobernari igortzea, Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2009ko urriaren 19an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

Lege proposamena, ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina aldatzekoa

ZIOEN AZALPENA

Nazio Batuen Erakundeak (NBE) Giza Eskubi-deen Adierazpen Unibertsala aldarrikatu zuen 1948ko abenduaren 10ean. Adierazpen haren 25. artikulua ezartzen du, besteak beste, gizaki orok, alargun geratuz gero, bizitza maila egokia izateko eskubidea duela.

Gizartearen lorpen handi hori Espainiako zuzenbide positiboan sartu zen Gizarte Segurantzako oinarriari buruzko abenduaren 28ko 193/1963 Legearen bitartez, eta zehaztu egin zen ondotik eman ziren testu artikuludun eta bateginean.

Lorpen hori, eskubide hori, azkenik, Gorte Nagusiek onetsi eta Espainiako herriak erreferendum bidez berretsitako 1978ko abenduaren 27ko Espainiako Konstituzioan jaso eta goretsi zen, I. tituluko III. Kapituluari, hain zuzen.

Gizartearen eskariak, ordea, ez dira aldaezinak; aitzitik, aldatzen doazen beharrezan zor zaizkie, eta gizarte-sentiberatasuna duen edozein estatuk hauteman behar ditu.

Hain zuzen ere, herritarren eskariei azkartasunez eta legegintzako tresna zaluen bidez erantzuteko gaitasunak ematen dio estatu bati benetako gizarte-estatuaren izaera.

Azken aldiotan, herri-eskari zabal bat sortu da, gizarteko sektore esanguratsuek babestu dutena eta planteatzen den intentsitatearen pareko zorrotzasunarekin aditu eta erantzun behar zaiona. Eskatzen dena da alargun pentsioen ehunekoak gaur egungo mugetatik goiti egitea, oinarri

arautzailearen ehuneko 70era bitarte; prestazio hori jasotzen dutenen dirusarrera guztien azken zenbatekoa ezin izanen da, hilean, 600 euroren azpitik geratu, baldin eta pertsona hartzaileak 65 urte beteak baditu edo gizarte babes publikoaren sistemako gutxieneko osagarria jasotzeko eskubidea badu, sistema horretan urtero ezartzen diren kapital nahiz lan errenten mugekin.

Eskari hori koherentea ez ezik egokia ere bada; izan ere zehaztu eta kuantifikatu egiten du Toledoko Hitzarmena izeneko 12. gomendioa, “dirusarrera gutxieneko alargun pentsioak hobetzea” defendatzen baitu.

Herritarren eskari zuzen horri erantzun beharra planteatzerakoan, nahitaez baloratu behar da horren bideragarritasun juridikoa eta ea bidezkoa den autonomia erkidego bateko legebiltzar batek –Foru Parlamentuak hain zuzen ere– halako ekimen bat sustatzea.

Argudio nahiko izan daiteke ekimena autonomia erkidego bakoitzaren eremura mugatzeko –Foru Komunitatearen eremura Nafarroaren kasuan–, hain zuzen ere eremu horretan gertatzen eta areagotzen direlako herritar taldeen errenta-mailen arteko aldeak. Halatan, Espainiako lurralde jakin batzuetan alargun pentsioak osatzeko formula bat ezartzeak ez du diskriminazio insolidarioa eragiten, Espainiako herrialdeetako errealtate sozialean gertatzen diren errenta ezberdinak berdintzeko tresna bat da-eta. Agian, komeni da legeak ematen duen aukera hori gizarte zerbitzuetarako gordetzea, eta Gizarte Segurantzako sistemako kutxa bakarraren printzipio finkatuaren gaineko eztabaidarik ez piztea.

Proposamenak Espainia osoko pentsioei eraginen die, eta hortaz, eztabaida Gorte Nagusiei –Kongresuari eta Senatuari– dagokie.

Kontuan hartu behar dugu, orobat, proposatutako neurriek berehalakoan izanen duten eragin ekonomikoa. Eta horretarako erreferenterik onena da pentsioei buruzko 2001eko apirilaren 9ko hitzarmenaren lege-garapenak izan duen eragina, 2002ko urtarrilaren 1etik aitzina nabaritu dena. Halatan, alargun pentsioen ondoz ondoko igoerek —% 45etik % 52ra— eta mota horretako pentsioei buruzko gainontzeko neurri osagarriek eragin oso txikia izan dute, hain txikia non ez duen inolako murrizketarik eragin Toledoko Hitzarmenari esker eratu zen erreserba-funtsean —2001eko 5.000 milioi eurotatik 2004ko amaierako ia 24.000 eurotara igo da—.

Finean, Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrak badu ahalmen eta kaudimen nahiko alargun

pentsioak oinarri arautzailearen % 70era bitarte igo eta igoera hori bere gain hartzeko eta, era berean, pentsio horien gutxieneko osagarri batzuk ezartzeko, lege honen hartzaileei gutxienez 600 euro hilean jasotzea bermatuko dietena.

Azken kautela gisa ikusi behar dugu ea eskari honek —gaur egun bideragarria da— etorkizunean gatazkarik ekarriko duen, eskuratutako edo eskuratzeaz dauden eskubideekiko konpromisoerik diru aldetik aurre egiterik ez izatearen ondorioz. Hori dela-eta, prospekzio demografiko guztiek iradokitzen dute alargun pentsioak ehunekotan gutxiago izanen direla prestazio multzoaren barrenean, familia- edo bizikide-unitateen taxukera berriaren eraginez eta emakumeak lan merkatura samaldaka sartzearen eraginez.

Aztertu egin beharko genuke, bukatzeko, Nafarroako Parlamentuak halako ekimen bat aurkezteko ahalmenik duen. Ahalmen hori Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoko 19.1.b) artikuluan jasotzen da, eta Espainiako Konstituzioko 87.2 artikulua babesten du. Horrenbestez, ondoko testu artikuluduna proposatzen dugu.

Artikulu bakarra.

Ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorren testu bategina aldatzea.

Ekainaren 20ko 4/1994 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorren testu bateginaren 174. artikuluari 4. eta 5. idatz-zati berriak gehituko zaizkio, eduki honekin:

“4. Alargun pentsioen oinarri arautzailea ehuneko 70ekoa izanen da.

5. Gizarte babes publikoaren sisteman kotizaziopeko prestazio osagarria izateko eskubidea ezartzen da, baldin eta hortik ateratzen den alargun pentsioak ez badu hilean 600 euroko kopurua gainditzen, kapital nahiz lan errenten bidez lortutako dirusarreraren mugak kontuan hartu eta gero.

Urtero, urtarrilaren 1etik aurrera ondorioak izateko, gaurkotu egingen da alargun pentsiorako ezarritako gutxieneko zenbatekoa, aurreko urteko kontsumorako prezioen indizearen igoera kontuan hartuta.”

Azken xedapena

Lege honek Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean hartuko du indarra.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da mezenasgoari buruzko foru lege proiektu bat presta dezan, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren finantzaketa handitu ahal izate aldera.

ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita mezenasgoari buruzko foru lege proiektu bat presta dezan, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren finantzaketa handitu ahal izate aldera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko urriaren 19an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Zioen azalpena

Gure egiten dugu Joan Guinovarten esaldi bat, NUPeko errektoreak 2009-2010 ikasturteari hasie-

ra emateko ekitaldian gogorarazi zuena; hala dio: “uste baduzue hezkuntza eta ikerkuntza garestiak direla, proba ezazu ezjakintasuna eta kaskarkeriarekin”

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren ikasturte hasiera ofizialean, Nafarroako Gobernuo lehendakariak eskatu zion hezkuntza komunitateari gastuari euts diezaion, alde batetik, eta kanpoko finantzaketa bila dezan, bestetik. Aldiz, NUPeko errektoreak gogorarazi zuen unibertsitate horrek aurrekontu-murrizketa handiak pairatu dituela azken aldian.

Agerikoa da unibertsitateak ez direla finantzaketa publikotik bakarrik bizi; aldiz, dituzten baliabideen zati bat enpresa pribatuetatik dator. Baina unibertsitateen finantzaketa pribatua modu argian handitzeko, beharrezkoa da finantzaketa mota hori erraztuko duten legezko oinarriak jartzea.

Unibertsitatearen ikerketa lana, garapena eta berrikuntza sustatzeko finantzaketa pribatua handitzea errazte aldera, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak ondo erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du 2010ean mezenasgoari buruzko foru lege proiektu bat aurkez dezan Nafarroako Parlamentuan, ahalbidetuko duena Nafarroako Unibertsitate Publikoak ikerketa lana, garapena eta berrikuntza egiteko duen finantzaketa pribatua handitzea.

Iruñean, 2009ko urriaren 16an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da podologia-zerbitzua emateko sistema bat abian jar dezan.

ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita podologia-zerbitzua emateko sistema bat abian jar dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko urriaren 19an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Zioen azalpena:

, Nafarroako Foru Komunitateko Arreta Podologikoari buruzko Adituen Lantaldeak, 2009ko maiatzaren 30ean, eskatutako lanak amaitu eta zenbait gomendio eman dizkio Osasun Zuzendaritza Nagusiari:

Proposamen horien artean, aipagarria da foru erkidegoan gaixotasun baskularrak dituzten pertsonen eta diabetesa duten pertsonen arreta hartzen duen arreta podologikoari buruzko sistema abian jartzekoa.

Galdetu genuen Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuak noiz jarriko duen abian osasun arloko zerbitzu hori, eta erantzun zitzaigun ez dela inolako denbora eperik ezarri Nafarroako Foru Komunitateko Arreta Podologikoari buruzko Adituen Lantaldeak eginiko gomendioak abian jartzeko.

Plan ugari egiten dira, askotariko gaien inguruko azterlanak egiteko eskarien ondorioz, baina gero, aipagai dugun kasuan bezala, azterlanen emaitzak ez dira betetzen.

Gure ustez, adituen lantalde horren gomendioak zerbitzuen zorroan sartzen ekoizpenerako inbertsio bat da; izan ere:

– lanpostuak sortuko dira.

– lan horretan beharrezkoak diren bitartekoei eta tresnei buruzko gastua eragingen du.

– prebentzio lana da.

– etorkizuneko osasun arloko gastua merkatuko du.

Horrenbestez, Nafarroako Ezker Batuak honako erabaki proposamena aurkeztu du:

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Osasun Zerbitzuen zerbitzuen zorroan sar dezan oinetan arazoak izateko arriskua duten pertsonen arreta.

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du 2010ean abian jar dezan foru erkidegoan gaixotasun baskularrak dituzten pertsonen eta diabetesa duten pertsonen arreta hartzen duen arreta podologikoari buruzko sistema, Nafarroako Foru Komunitateko Arreta Podologikoari buruzko Adituen Lantaldeak eginiko azterlanean gomendatzen den moduan.

Iruñean, 2009ko urriaren 16an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Estellerriko mendialderako berariazko ekintza plana gara dezan.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita Estellerriko mendialderako berariazko ekintza plana gara dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko urriaren 19an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

MOZIOAREN TESTUA

Samuel Caro Sádabak, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko eledunaren ondokoak, Legebiltzarreko Erregelamenduan 195. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, jabeldura baten ondorioz, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita Estellerriko mendialdearen garapen sozial eta ekonomikorako eta ingurumen-garapenerako plan bat gara dezan, Legebiltzarreko Osoko Bilkuran eztabaida eta onets dadin.

Zioen azalpena

Duela gutxi, Nafarroako Gobernuak adostu du mugatzea foru erkidegoko zenbait landa eremu, lehenbailehen horien garapen sozial eta ekonomikorako eta ingurumen-garapenerako politikak sustatzeko. Hona hemen eremu horiek: Pirinioak, Atlantikoko mendiak, Estellerriko mendialdea eta Nafarroaren Ekialdeko erdialdeko mendiak.

Mugatze hori da 2010-2014 urteetarako Nafarroako Landa Garapen Iraungarriko Programa garatzeko lehen urratsa; izan ere, hori baita Estatuko Landa Ingurunearen Garapen Iraungarri buruzko Legean ezarritako jardura nagusia. Lege horretan ezartzen dira landa eremuetarako politika

egiteko oinarriak, eskualde bakoitzaren egoera ekonomiko, sozial eta ingurumenezkora egokituta.

Lege horrek askotariko ekintzak eta neurriak jasotzen ditu, Estatuko Administrazio Orokorren eta gainerako administrazio publikoen artean adostuta, atzeratuago dauden landa eremuen garapen sozioekonomikoa sustatze aldera. Eremu horien kalifikaziorako kontuan hartu dira Landa Ingurunearen Kontseiluak, Landagune eta Itsas Inguruetako Ministerioak eskatuta, emandako irizpideak eta gomendio orokorrak. Datuak Estatuko iturri ofizialetatik hartu dira, autonomia erkidego guztiek irizpide berberak erabil ditzaten eremuak kalifikatzerakoan.

Lehentasunezko eremua kalifikatzeko eta mugatzeko kontuan hartu diren aldagaiak hauek dira: populazio dentsitatea eta joera, zahartzetasa, lehen, bigarren eta hirugarren sektoreetako enplegu-proporzioa, nekazaritzaren esangura, per cápita errenta, hiriguneekiko gertutasuna edo urruntasuna eta lurraldea egituratzeko zailtasunak.

Lehentasunezko landa eremuak zehaztu ostean, Nafarroako Gobernuak 2010-2014 urteetarako Nafarroako Landa Garapen Iraungarriko Programa garatu beharko du. Programa horretan berpiztu beharreko eremu bakoitzerako ekintza plan berariazkoak jasoko dira.

Aurreikusitako eremuetako bat da Estellerriko mendialdekoa, zeinetan, partzuergo eta mendi ugariz gain, ondoko udalerrriak sartzen baitira: Abaigar, Allin, Ameskoabarren, Antzin, Aranaratxe, Eulate, Lana, Larraona, Legaria, Mendaza, Metauten, Murieta, Oko, Piedramillera, Zuñiga, Aguilar Kodeskoa, Armañanzas, Azuelo, Bargota, Cabrero, Desojo, El Busto, Esprontzedo, Genevilla, Lapoblación, Los Arcos, Marañón, Mirafuentes, Mues, Nazar, Santsol, Sorlada, Torralba del Río eta Torres del Río.

Ikusirik eskualde horren ezaugarri bereziak, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du eztabaidatu eta bozkatzeko:

1.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du Estellerriko mendialderako berariazko ekintza plana gara dezan.

2.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du ekintza plan hori presta

dezan eskualde horretako toki entitateekin eta gizarte eragileen parte-hartzearekin.

3.- Ekintza plan hori Nafarroako Parlamentuan aurkeztu beharko da 2010eko irailaren 1a baino lehen, halako moduz non, plana ezagutu eta eba-

latu ostean, 2011ko aurrekontuan sartuko baitira plana abian jartzeko beharrezkoak diren kontusailak.

Iruñean, 2009ko urriaren 15ean

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Nafarroan klima aldaketa arintzeko plan bat presta dezan.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita Nafarroan klima aldaketa arintzeko plan bat presta dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko urriaren 19an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

MOZIOAREN TESTUA

Samuel Caro Sádabak, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko eledunaren ondokoak, Legebiltzarreko Erregelamenduan 195. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, jabeldura baten ondorioz, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita Klima Aldaketari buruzko Departamentu arteko Batzordea abian jar dezan, funtsezkoa baita Nafarroan Klima-aldaketaren Eraginak Arintzeko Plana gauzatu ahal izateko.

Zioen azalpena

Irailaren 23an, klima aldaketari buruzko azterlana eta proposamena jasoko zituen txosten bat

egiteko lan-taldeak eginiko txostena onetsi zuen Nafarroako Parlamentuko Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Batzordeak. Parlamentu-talde guztiek aho batez onetsi zuten aipatu txostena. Bertan, Nafarroako Gobernuari agintzen zaio Nafarroan Klima-aldaketaren Eraginak Arintzeko Plana presta dezan.

Lantaldearen txostenean klima-aldaketaren aurkako borrokan ezarri beharreko zenbait gutxieneko helburu ezartzen dira, eta, halaber, helburu horiek gauzatu ahal izateko tresnak ere ezartzen dira.

Helburu horiek lortu ahal izateko, funtsezkoa da Klima-aldaketaren aurkako Nafarroako Estrategia prestatzea, legegintzaldi honetan garatu ahal izateko.

Kontuan hartuta estrategia horrek izanen duen garrantzia iraungarritasunari buruzko helburuak lortzeko eta klima-aldaketaren aurka borroka egiteko, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du beharrezkoak diren ekintza guztiak abian jar ditzan Nafarroan Klima-aldaketaren Eraginak Arintzeko Plana prestatzeko eta bertan parlamentu-talde guztiek aho batez onetsitako txostenean jasotako helburu eta xedeak kontuan hartzeko, eta, halaber, Klima Aldaketari buruzko Departamentu arteko Batzordea abian jar dezan, funtsezkoa baita Klima-aldaketaren Eraginak Arintzeko Nafarroako Plana gauzatu ahal izateko.

Iruñean, 2009ko urriaren 15ean

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hitzarmen bat sina dezan Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin, Nafarroako udaletan bizikletentzako aparkalekuak jartzeko.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita hitzarmen bat sina dezan Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin, Nafarroako udaletan bizikletentzako aparkalekuak jartzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko urriaren 19an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

MOZIOAREN TESTUA

Samuel Caro Sádaba, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldearen eledunaren ondokoak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 195. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, honako mozioa aurkeztu du, Nafarroako Parlamentuko Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Batzordean eztabaida eta onets dadin. Haren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hitzarmen bat sina dezan Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin, Nafarroako udaletan bizikletentzako aparkalekuak jartzeko.

Zioen azalpena

Gaur egungo gizartea kontzientzia hartzen ari da ohitura iraungarriagoak erabiltzeko beharraz gizartearen zenbait arlotan: nekazaritza, energia aurrezte, ingurumena, garraioa eta abar.

Nafarroako udalerrri askotan, duten tamainagatik edo beren ezaugarri geografikoengatik, bizikleta bidezko garraioa garraio arruntaren ordeztu erabil liteke, batez ere gizartearen sektore zabaletan, hala nola gazteak eta eskola-umeak, horretarako azpiegitura handirik egin beharrik gabe.

Garraio mota hori baliatu nahi duten herritarrek izaten dituzten arazoei gehitu behar zaie udalerrri askotan ez dagoela bizikletentzako aparkalekurik.

Gure ustez, XXI. mendeko gizarte nafarrak, mugikortasunari eta iraungarritasunari buruzko plan handiak egiteaz gain, hartu behar ditu garapen iraungarriagoa lortzera bideratutako berehalako neurriak.

Foru erkidegoko hiri eta herri askotan ez dago bizikletentzako aparkalekurik hiriguneetan, ez eta oso erabilgarriak diren eraikin publikoetatik gertu ere –ikastetxeak, institutuak, osasun etxeak, gizarte etxeak, kirol instalazioak eta abar–.

Hori guztia dela-eta, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du, Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hitzarmen bat sina dezan Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin, Nafarroako udaletan bizikletentzako aparkalekuak jartzeko.

Iruñean, 2009ko urriaren 15ean

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

F saila:
GALDERAK

Galdera, Osasun Departamentuaren eta Arfe-Felipe Lecea Fundazioaren arteko hitzarmenaren etorkizunari buruzkoa.

ASUN FERNÁNDEZ DE GARAIALDE Y LAZKANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak aurkeztutako galdera, Osasun Departamentuaren eta Arfe-Felipe Lecea Fundazioaren arteko hitzarmenaren etorkizunari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osasun Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2009ko urriaren 19an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marco-tegui Ros

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde andreak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Osasun kontseilariak Osasun Batzordean ahoz erantzun dezan:

Kutz andreak eta Osasun Departamentuak dakitenez, 2009ko abenduaren 31n amaituko da Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak ARFE-Felipe Lecea Fundazioarekin duen hitzarmena, ospitaleratuei osasun laguntza psikogeriatrikoa emateko.

Hori dela-eta, hona galdera:

Zer gertatuko da hitzarmen horrekin? Zer negoziazio izan ditu departamentuak aipatu fundazioarekin orain arte? Gaur egungo proposamenaz gain, ba al du besterik aipatu klinikaren etorkizunerako?

Iruñean, 2009ko urriaren 13an

Foru parlamentaria:

Asun Fernández de Garaialde y Lazkano

Galdera, Tuterako osasun-barrutirako endokrinologia zerbitzuari buruzkoa.

ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako galdera, Tuterako osasun-barrutirako endokrinologia zerbitzuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko urriaren 19an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko foru parlamentari Ana Figueras Castellano, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko.

Ikusirik endokrinologiako espezialistei dagokiez Tuterako Reina Sofía Ospitalean dagoen desoreka, García Orcoyen Ospitalearekin eta Nafarroako Ospitalearekin alderatuta, parlamentari honek beharizan horri erantzuteko eskatu dio Osasun Departamentuari.

Kontseilari andreak erantzun zuenez, endokrinologiako espezialista bakarra ez dagoenean Tuterako Reina Sofía Ospitaleko barne medikuntzako espezialistek artatzen dituzte lehentasunezko arreta behar duten gaixoak.

Kontseilari andreak gehitu zuen Nafarroako Ospitaleko Endokrinologia Zerbitzuarekin batera aztertzen ari dela zerbitzu hori Tuterako Reina Sofía Ospitalearekin koordinatzeko modua.

• Gobernuak ba al du asmorik Tuterako osasun barrutirako endokrino lanpostua sartzeko lan eskaintza publikoan?

Nafarroako Gobernuak noiz jarriko du abian Nafarroako Ospitaleko Endokrinologia Zerbitzua eta Tuterako Reina Sofía Ospitalearen arteko espezialistari laguntzeko koordinazioa?

Iruñean, 2009ko urriaren 16an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Galdera, urtero gizarte etxeak edo gune soziokulturalak abian jartzeko laguntzen deialdiari buruzkoa.

ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako galdera, urtero gizarte etxeak edo gune soziokulturalak abian jartzeko laguntzen deialdiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko urriaren 19an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Román Felones Morrás jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 186. artikuluan eta hurrengoetan xedatu-

aren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko.

2008ko foru erkidegoaren egoerari buruzko eztabaidan eduki desberdineko zenbait erabaki proposamen onetsi ziren. Horietatik 17.ak, zeina partalamentu-talde guztiek aho batez onetsi baitzuten, hauxe zioen hitz hitz:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du urtero gizarte etxeak edo eremu sozio-kulturalak sortu eta abian jartzeko laguntzen deialdia egin dezan. Deialdi horretan, 3.000 biztanle baino gutxiagoko udalen premia bereziak jasoko dira, modurik ez baitute udaletako kultur etxeei exijitzen zaizkien programak lortu ahal izateko.

2. Deialdia Kultura eta Turismo Departamentuak eta Gizarte Gaietarako Departamentuak eginen dute batera, eta bertan populazioaren, haurren, gazteen, helduen eta hirugarren adinekoen beharrak jaso beharko dira, kostuak gutxitzea eta bizikidetasun harmoniatsua bideratuko duen sinergia bat lortzeko.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du udalen estutasun ekonomikoak

ikusita, foru gobernuaren dirulaguntzen zerumuga jar dadin kostuaren bi herenetan, betiere ukituriko bi departamentuek finantzatuta; kasuko udalak, berriz, obraren beste herena ordaindu beharko du.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du deialdi hori 2009ko lehen hiruhilekoan abian egon dadin, hartan aurreikusitakoa modu egokian garatu ahal izateko.”

2009ko azken hiruhilekoan gaude eta ez dugu deialdi horren berririk izan. Hori dela eta, hau jakin nahiko nuke:

a.- Zer arrazoi izan dira eragotzi dutenak Gobernuak deialdi hori egitea, parlamentu-taldeek aho batez onetsi zuten moduan?

b.- Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik 2008ko foru erkidegoaren egoerari buruzko eztabaidan onetsitako erabakietatik 17.a betetzeko?

c.- Gutxi gorabehera noiz eginen du Gobernuak aipatu deialdia?

Iruñean, 2009ko urriaren 15ean

Foru parlamentaria: Román Felones Morrás

Galdera, Nafarroako osasun zerbitzu publikoan haurdunaldiaren borondatezko eteteak egiteko aukerari buruzkoa.

ION ERRO ARMENDÁRIZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ion Erro Armendáriz jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako osasun zerbitzu publikoan haurdunaldiaren borondatezko eteteak egiteko aukerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko urriaren 19an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko Ion Erro

Armendarizek, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu dio Gobernuari, hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Iragan urriaren 15an eta 16an eginiko Foru Komunitatearen egoerari buruzko eztabaidan erabaki proposamen bat onetsi zen, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen zen ziurta zezan Nafarroako osasun zerbitzu publikoan haurdunaldiaren borondatezko eteteak egiteko aukera.

Horrenbestez, hauxe jakin nahi dugu:

Zer neurri hartuko ditu Nafarroako Gobernuak ziurtatzeko Nafarroako osasun zerbitzu publikoan haurdunaldiaren borondatezko eteteak egiteko aukera?

Iruñean, 2009ko urriaren 19an

Foru parlamentaria: Ion Erro Armendáriz

Galdera, jakiteko ea badagoen Nafarroako Gobernuko funtzionario- lanean, zuzenean nahiz eszedentzia batekin, enpresa publikoren batean.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du jakiteko ea badagoen Nafarroako Gobernuko funtzionario- lanean, zuzenean nahiz eszedentzia batekin, enpresa publikoren batean.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko ekainaren 19ko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok galdera hauek egin ditu (PES-2003):

1. Gaur egun ba al dago Nafarroako Gobernu-ko funtzionario- lanean, zuzenean nahiz eszedentzia batekin, enpresa publikoren batean?

2. Zer enpresa publikotan daude lanean funtzionario horiek?

3. Zer mailatakoa da funtzionario horietako bakoitza?

4. Zer kargu ari dira betetzen une honetan?

Hona Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren erantzuna:

Lehengoa.- 41 funtzionario ari dira sozietate publikoetan zerbitzu ematen, eta denak daude zerbitzu berezietako egoeran.

Bigarrena.- Funtzionario horiek ondoko sozietateetan ari dira zerbitzu ematen:

– Nasersa,

- Pin,
- Opatel,
- Baluarte,
- Navarra de Gestión y Administración, S.A.,
- Tracasa,
- Viveros y Repoblaciones,
- Vinsa,
- Cnai,
- Nafinco,
- Agencia Navarra de Transporte,
- Inaac,
- Nasursa,
- Nasuinsa
- Planetarioa.

Hirugarrena.- 41 pertsona horietarik 19 A mailako funtzionarioak dira, 10 B mailakoak, 11 C mailakoak eta 1, berriz, D mailakoa.

Laugarrena.- Ondoko karguak dituzte gaur egun:

- Kudeatzaileak: 3
- Zuzendariak eta zuzendariaren ondokoak: 4
- Departamentuko zuzendariak: 4
- Teknikariak: 21
- Arloko buruak: 7
- Operadoreak: 2

Iruñean, 2009ko irailaren 21ean

Bigarren lehendakariorde eta Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

Galdera, Nafarroako Foru Komunitatean uztailean eta abuztuan gertatutako suteei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Nafarroako Foru Komunitatean uztailean eta abuztuan gertatutako suteei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko irailaren 14ko 88. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko urriaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Nafarroako Foru Komunitatean uztailean eta abuztuan gertatutako suteei buruz (PES-236). Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Departamentu honetan gaur egun dauden datuen arabera, uztailean eta abuztuan 135 ezbehar izan dira. Horietatik, 27 baino ez dira izan hektarea 1 baino gehiagokoak, eta ezin dira, beraz, baso-sutetzat jo. Gainerakoak, hau da 108, sutehasierak baizik ez dira izan. Departamentuan ditugun datuen arabera, honakoak izan dira ezbeharren arrazoiak:

OINAZTURAK	5
Nekazaritzako erretzeak	9
Larreak berrindartzeko erretzeak	2
Basoko lanak	1
Zigarro-erretzaileak	4
Zabortegiko ihesa	1
Trena	1
Linea elektrikoak	3
Motoreak eta makinak	8
Beste zenbait	5
ARDURAGABEKERIAK ETA ISTRIPUAK	34
NAHITA PIZTUTAKOAK	27
ARRAZOI EZEZAGUNEKOAK	65
BERPIZTEAK	4
GUZTIRA	135

Ezbehar kopurura, arrazoiaren arabera sailkatuta

Ezbeharretatik 108tan, erretako azalera hektarea 1 baino gutxiago izan da. Gainerako 27 ezbeharrek kontuan hartuta, erretako baso-azalera zuhaizdunak 435,84 hektarea egin ditu, baso-azalera zuhaitzik gabeak 454,41 hektarea eta baso-azalera ez zenak, berriz, 475,95 hektarea. Alegia, 27 suteok erretako azalera, guztira, 1.366,20 hektareakoa izan da.

Nabarmentzekoa da aurreko hektareetatik 1.216 Itzagako (876 ha) eta Txulapaingo (340 ha) suteei dagozkiela. Hau da, baso-suteek uztailean eta abuztuan erretako azalaren % 89 bi sute horiei dagokie.

Foru arauetan ezarri bezala, basogintzaren arloan Nafarroako Foru Administrazioari dagokio suteek ukitutako alde guztiak lehengoratzeko lanak finantzatzea, Nafarroako aurrekontu orokorren kargura. Horrek esan nahi du Nafarroako Gobernuak % 100 finantzatuko dituela erretako esparrua lehengoratzeko lan guztiak.

Edonola ere, lehengoratu beharreko azalera (eta, horrekin batera, ezbeharrek eragindako kalte ekonomikoa), ondo bidean, 2010eko udaberrian ezagutuko da, orduan aztertuko baita kaltetutako eremuen leheneratze naturala; izan ere, sarritan, mendiak berez basoberritzen dira, eta espezieen berezko bilakaerak bidea ematen du espezie heli-ofiloenak sar daitezen, haritzak edo lizarrak esate baterako.

10 milioi prebentzio-lanetan

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak 2,35 milioi euro inbertitu ditu aurtengo neguan baso-suteen prebentziorako zuzeneko ekintzetan, eta 2008an, berriz, 7,85 milioi euro zeharkako ekintzetan, zeinak egokiak gertatzen baitira oihan-masa hobetzeko. Guztira, 10,2 milioi euro.

Zuzeneko ekintzen artean, nabarmentzekoa da 600.000 euro gastatu direla honakoetan: Sabaizan eta Leotzen basogintzako lanak egin dira, Orisoainen eta Lerinen azpiegiturak hobetu dira, Burgin suebakiak egin dira, eta, Baztanen, sastrakak kendu egin dira, erre beharrean. Basoko lanetarako dirulaguntzen kanpainaren barruan (1,75 milioi euro), ondoko ekintzak egin dira, zuzenean basoetako suak prebenitzera bideratuak: suebakiak (32 hektarea), sastraka-kentze prebentiboak (62 hektarea), baso gazteen mantentze-lanak (1.420 hektarea), bakanketak (854 hektarea), eta sastraka-

erretzeen ordeko sastraka-kentzeak (951 hektarea).

Basoak mantentzeko eta hobetzeko zeharkako ekintzek (7,85 milioi) gutxitu egiten dute basoetako su-arriskua, eta hori begi bistakoa da; zeharkako ekintzak dira, konparazio baterako, baso-masa antolatzeko proiektuak, izurriteen aurkako borroka, nekazaritza-lurak basotzea, basoberritutako eremuen mantentze-lanak eta abar. Laguntza horien zati bat toki entitateek eta jabe pribatuek jasotzen dituzte, mendien kudeaketa egokia ziurtatzeko.

Landa Garapeneko Departamentuak, bestalde, bulldozer bat jarriko du, laguntza-talde gisa, baso-suteak itzaltzeko aurtengo udako kanpainarako; bulldozerraren talde horrek –uztailaren 1etik irailaren 30era bitarte arituko da lanean eta 100.000 euroko gastua izanen du, gutxi gorabehera– suebakiak eginen ditu, suteak itzaltzen lagunduko du eta suhiltzaileei behar dituzten bideak irekiko dizkie. Departamentuak, era berean, basozainak ere jarriko ditu, hala Biodibertsitatea Zaintzeko Zerbitzukoak nola basozaintzakoak. Langileok, SOS Nafarroak eskatuta mobilizatzen dira. Dituen egin-kizunak dira baso- eta ingurumen-gaietan aholku ematea eta, suhiltzaileekin ados jarrita, makineria pisua mugitzea. Landarediari eta lekuei buruz duten ezagutzarekin laguntzen dute, erabakiak hartzeko lagungarria gertatzen baita.

Halaber, udan, eta klimaren egoeraren arabera zenbatekoa den baso-suteak izateko arriskua, kontseilariak foru agindu bat sinatzen du, non jasotzen baitira landa-eremuetan sua erabiltzeko prebentzio neurriak eta arauak; hala egin izan da azken urteotan, eta, gehienetan, debekatu egin da sua egitea.

Gogoratu behar da, edonola ere, zenbaitetan ezinezkoa dela baso-sute bati aurrea hartzea; bereziki, klimatologiak zerikusia duen egoeretan: haize zakarra, bero handia eta hezetasun erlatibo txikia. Bestela esanda, teknikoki ez dago benetako modurik ziurtatzeko ez dela sute gehiago izanen. Edonola ere, herritarrei arduraz jokatzeko eskatu behar zaie, hau da, araudia bete dezatela, oinarritzko zuhertasun-neurriak har ditzatela eta errespeta dezatela natura.

Hori jakinarazten dut, Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko irailaren 29an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Lan-taldea, Nafarroako Foru Komunitateko Osasun Publikoaren Plan Estrategikoari buruzkoa.

OSAERARI ETA ERATZEARI BURUZKO ARAUAK

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urriaren 19an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Osasun Batzordeak 2009ko urriaren 7an onetsi zuen, Erregelamenduko 55.2 artikularekin bat, Nafarroako Foru Komunitateko Osasun Publikoaren Plan Estrategikoari buruzko lan-talde bat sortzea, eta Legebiltzarreko Mahaiari eskatu zion xedatu beharrekoa xeda zezala aipatu lan-taldearen osaerari eta eratzeari buruz.

Lan-taldea eratu eta lanean has dadin, ondokoa ERABAKI DA:

1. Epe bat ematea, 2009ko urriaren 22ko 12:00ak bitartekoa, parlamentu-talde edo foru parlamentarien elkarte bakoitzak aipatu lan-taldeko ordezkaria izenda dezan, Osasun Batzordeko kideen artetik, Legebiltzarreko Mahaiari idazki bat zuzenduta. Idazki horren bidez orobat izendatuko

da kasuan kasuko talde edo elkarteko parlamentari bat, beharrezkoa denean ordezkari hura ordezkari dezan.

2. Behin ordezkariak izendatuta, Mahaiak lan-taldea zein egunetan eratuko den erabakiko du, eta lan-taldea lanean hasiko da.

3. Azterlana prestatzeko epea 2010eko apirilaren 20an bukatuko da.

Behin txostena prestatuta, Parlamentuko Mahaiari igorriko zaio, eta hark Batzordeko kideei bidaliko die, txostena eztabaidatu eta bozkatuko den bilkuraren deialdiarekin batera.

4. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2009ko urriaren 19an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros